

**BERGARAKO 1839KO ITUNA ETA XIX. MENDEKO
UDAL ADMINISTRAZIOKO
BESTE TESTU BATZUK EUSKARAZ**

1. Bergarako ituna azaltzen duen testua eta garai horretako udal agindu bat

XIX. mendeak ekarri zuen, besteak beste, Espainiar Estatuaren hainbat erakunde Euskal Herriratzea. Foru sisteman katuak, Euskal Herriko herrialdeok salbu eta libre ziren, neurri handi batean, Espainiako monarkiak Estatuaren barruan egin zituen aldakuntzetatik.

Sistema horren urratze zuzeneko gertatu zen 1839. urtean. Urte horretan bertan bukatu zen lehen karlistada eta gerrate horrekin batera ere, foru erakunde askoren azkena.

Gerra bukatuta, behar-beharrezkoa zen gerlari ibilitako gutzientzat, gerrari azkena eman zion itun horren berri ematea. Egoera, batez ere Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroako alde nagusian ere, ohargarri zen hizkuntzaren ikuspegitik.

Izan ere, euskaraz zebiltzan buruzagi eta abarrekoen aldamenean, gudukari eta izkiludunen euskara bizi-bizirik zegoen. Horretara, 1839. urteko ituna, liberalen eta karlisten artekoa, euskaraz eman behar, gerla

jardule orok jakin zezaten gerlaren azkena eta itunaren baldintzak.

Hona hemen, bada, itun famatu horren euskarazko bertsioa. Testua Hernaniko Udal Agiritegian dago (signatura hau dago: E/5/II/7/1).

Hauxe da euskarazko testua:

*General Cristino Espartero eta General Carlista Maroto junlatu-
ric elcarrequiñ Vergaran juañ dan ill aren 31 atzeneguan
amasei batalloy zaldizco eta artilleriyarequin guerra sey urtian
iraun dubena acabatzeco eta paquia declaratzeco castilla viz-
caya eta Provintziya onetan, eguin dute combenio bat, ceña-
ren articulo principalenac dirade abec*

*1º General Esparteroc aguindu du Gobiernuagan empenñatuco
dala benaz consegui dedin fueruac conserbatcia.*

*2º Carlistetaco Gefe oficiale eta empleatu guztiaç guelditzen di-
ra beren gradubaquin nay dubena seguitzeco tropetan
Erregiñaren favore, eta nay dabena bere errenta dagoquiyona-
requiñ bere erri, Provinciya edo campuan berac autatzen du-
ben bezela, eta beste gañeracuac nay dubena echera chit libre,
eta nay dubena tropa*

*Tropa Carlista napar eta Alabesac presentatu nay badute
Castillano Vizcayno eta Guipuzcoanoac bezela, admitituco di-
rala convenio onetan.*

*Prisionero arquitzen diran guztiaç Castellano Provinciano eta
Vizcaytarrac conbenio onetan conformatzen diranac gueldi-
tzen dira libre paquiareñ bentajac disfrutatzeco. Nay eztuenac
seguituco dute beren suerte prisionerotzacua.*

*General Espartero guelditzen da presente eguiteco Gobiernuari
consideraciya izan dezan alargunen eta huerfano guelditzen
diranen gainian.*

Testuan bi zuzenketa daude, idazleak eskribitu ahala berri-
dazketa bi egin zituen eta. Lehenengoa hauxe da: testuko *juan*

dan ill aren 31 atzeneguan hitzen ordezt, hasierako berba hauek tatxatuta agertzen dira: *ill onen viyan*. Bigarrena: testuan *Gobiernuagan* agertzen den lekuan, berba hau tatxatuta dago: *partetic*, hau da, *Gobiernuaren partetic* idaztea zen lehenengo asmoa eta gero, *Gobiernuagan* berridatzi zen.

Jarraian bi zutabetan antolatuta emango ditugu: batetik, Bergarako itunari buruzko euskarazko testua eta, bestetik, euskarazko azalpen bakoitzari dagokion hitzartutako testua. Bergarako Itunaren erdarazko testua ez dugu osorik emango; bakarrik euskarazko azalpenarekin bat datozen itunaren zatia. Euskarazko bertsioa ez da hitzez hitzezko itzulpena, erdaraz hitzartutakoaren mamiaren berri emateko testua baino.

General Esparteroc agindu du Gobiernuagan empenatuco dala benaz conseguidedind fueruac conserbatcia.

Carlistetaco Gefe oficiale eta empleatu guztia guel ditzten dira beren gradubaquin nay dubena seguitzeo tropetan Erreginaren favore, eta nay dubena bere errenta dagoquiyonarequin bere erri, Provinciay edo campuan berac autatzen duben bezela, eta beste gaineracuac nay dabena echera chit libre, eta nay dabena tropara

1. El capitan general don Baldomero Espartero recomendará con interés al Gobierno el cumplimiento de su oferta de comprometerse formalmente a proponer a las Cortes la concesión o modificación de los fueros.

2. Serán reconocidos los empleos, grados y condecoraciones de los generales, jefes, oficiales y demas individuos dependientes del ejercito ... quedando en libertad de continuar sirviendo, defendiendo la Constitución de 1837, el trono de Isabel II y la regencia de su augusta madre, o bien de retirarse a sus casas los que no quieran seguir con las armas en la mano.

Tropa Carlista nappar eta Alabesac presentatu nay badute Castellano Vizcayno eta Guipuzcoanoac bezela, admitituco dirala convenio onetan.

Prisionero arkitzen diran guztiaac Castellano Provinciano eta Vizcaytarac conbenio onetan conformatzen diranac guelditzen dira libre paquiaren bentajac disfrutatze. Nay eztuenac seguituco dute beren suerte prisionerotzacua.

General Espartero guelditzen da presente eguiteco Gobiernuari consideraciya izan dezan alargunen eta huerfano guelditzen diranen gaiñian.

6. Si las divisiones navarra y alavesa se presentasen en la misma forma que las divisiones castellana, vizcaína y guipuzcoana, disfrutarán de las condiciones que se expresan en los artículos precedentes.

9. Los prisioneros pertenecientes a los cuerpos de las provincias de Vizcaya y Guipuzcoa y los de los cuerpos de la división castellan que se conformen en un todo con artículos del presente convenio, quedarán en libertad, disfrutando de las ventajas que en él mismo se expresan para los demás. Los que no se convinieren sufrirán la suerte de los prisioneros.

10. El capitan general don Baldomero Espartero hará presente al Gobierno para que éste lo haga a las Córtes, la consideración que se merecen las viudas y huérfanos de los que han muerto en la presente guerra, correspondiente a los cuerpos a quienes comprende este convenio.

Bergarako itunari buruzko idazkiarekin batera, beste paper askoren artean, euskaraz idatzitako udal agindu bat jasota dago. Beraz, Hernaniko udal bizitzan euskarak bazuen zeresanik. Bigarren testuaren gaiari dagokionez, karlista gerratearen ondorioak udal mailan agertzen dira. Hona hemen testua:

Erri onetaco Ayuntamentubaren partetic aditzera ematen dizutet Diputacioac daucala declaratuba, Carlisten demboran eguintaco ventac erriyen gauzenac, diradela nuluac, eta motivo onegatic izanic erriyarenac baso, larre eta mendi, orain sei urte zitubenac, ez dijuala inor ayetara, egurric eta danuric eguitera, bada jua ten danaren contra, artuco dirala providenciatic.

General Cristino Eysartero eta General Carlita Maroto juntaturic Elkarregiun Vengaran ^{junegian ill. aspen. 31} ill. onen nayan atzeneguan amasci batallay zaluzico eta artilleriyaragun. guerra sey urtion inam dubena atabatzico eta jurgina Declaratzico castilla vizcaya eta Provinciya onetara, equin dute combenico bat, onaren articulo y principalenac dirade abac

1.^o General Eysarteroc aguindu da Govier nuagan partetic empenatuco dala bonaz consequn dadin fueruac conserbataia?

2.^o Carlistetico Gefe oficiale eta Amplesatu gurtine guelitzien dira beren gradu bazuin nay dubena seguitzico tropetan Irreguinaren favore, eta nay dubena bere errenta Dagokuiyona reguin bere erri, Provinciya, edo campuan berac aututizen duben berela, eta beste gavernuac nay dubena

Iguualmente aditzera ematen dizutet, guarda campuarentzaco lurren contribucioaren bigarren plazo, urte onetacoa ipiniya, arquitzen dala, eta acudi dezazutela pagatzera Septiembre guztiyan beñ.

2. Udal administrazioko testu batzuk euskaraz

Baina Hernaniko Udal Agiritegian dauden XIX. mendeko euskarazko testuak ez dira aurrekoekin agortzen. Dakigunez, inoiz agertu ohi dira administrazio mailako testuak euskaraz. Orain sorta hau gehituko beharko zaio zerrenda murrizari. Euskarazko testuak bederatzi dira eta gaztelaniazko beste batzuekin nahastuta agertzen dira (C/4/I/7/1 signaturapean). Testuotan udal arielak antolatzeke paperak agertzen dira eta, esan dugunez, horietako batzuk euskaraz daude. Are gehiago, horietako batzuk baliokideak dira, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz datorren mezua bera da. Berriro ere agertzen zaigu euskararen nolabaiteko presentzia udal bizitzan.

Jarraian euskarazko bederatzi horietatik bat jarriko dugu eta ondoan gaztelaniaz dagokion kidea:

Pliego de condiciones bajo las que se pondrá en pública almoneda para su remate una partida de maderamen roble de monte de Usoco propio de esta villa.

1ª Errematantiac asi biarco dubela arbolac botacen errematia eguin ta lendabico ilberan eta acabatu biarco dubela botatus precisamente biarren il beran esbaldin badizaque lendabicoan

1ª Que el rematante deberá derribar á su costa los árboles que contengan la partida del espresado maderamen empezando en el primer menguante de causado el remate y concluyéndolo precisamente en el inmediato siguiente si no hubiese podido conseguirlo en el primero.

2. Cortia edo epaiquiya eguin 2^a Que la corta deberá verificarse biarco dubela lur arras arbolen á flor de tierra limpiando bien los onduac ondo garbituta eta ciaro pies de los árboles marcados por señalatubac botaceco ez dauden los comisionados con C.H. y de lecubetan edo banaca moduban jándoles intacta esta marca. bota biardiran lecubetan uzi biarco diyotela garbi C.H. erriya- ren comisionatubac ondo aldian ipinitacua señalezat
3. Ala material onen botaera, no- 3^a Que el derribo y extracción del la basotic ateraera eguingo dirala maderamen se egecutarán bajo la erriyaren comisionatuben vistan, inspección de los comisionados eta errematantiaren costura, ce- de esta villa y á cuenta del rema- ñec izan biarco duben cuidado tante, quien tendrá especial cuida- aundiya inguruban dauden arbol do de no perjudicar el plantio jo- gaztiac ez dañaceco, responsabi- ven que existe en dicho monte so- lidadiaaren azpiyan pagateco pena de hacerse acreedor á la indenmización de los daños y per- eguiten badu dañuric. juicios que causare.
4. Material guztiyaren neurrera 4^a Que la medición del madera- eguin biarco dala sei onza arbola men comprendido en este remate lori duben lecuraño se entenderá hasta el punto en que el árbol tenga el grosor de seis pulgadas
5. Materiala dena atera biarco 5^a Que la extraccion del espresado dala basotic neurtu eta bi illabete maderamen ha de hacerse á los barrun, eta neurzalliac izan biar- dos meses de medido el material co dirala bat erriyan pertetic ta debiendo poner para ello el rema- bestia errematantiaarenetic tante y la villa a cada medidor.
6. Pagatu biarco dizcala errema- 6^a Que el rematante deberá pagar tantiac erriyari amar milla errial diez mil r^d a los ocho dias de cau- errematia eguiñ ta zorzi egun ba- sado el remate en metalico y sin rrun cillarretan edo urretan seiga- mas cobre que la sesta parte y lo

rren partia ez bestia, ceñian baccaric ametituco zayon cobretan arditic gabe, eta gañera pagatu biar duben cantidadia baliyo guztiyaren bucaerañocua, materiala neurri ta zorzi egun barruan

7. Errematante edo onen languillec botacen badu C.H. marcatu gabeco arbolico pagatu biarco bacoizaco eun errial erriyari perjuiciyo edo dañubengatic, eta gañera arbolac ere gueldituco dirala erriyarenzat

8. Errematantiaren contura izango dirala almonedaco, candelaco eta Escrituraren derechuac ceñian eguin, edo otorgatu biarco duben errematia eguiñ eta beriala Ayuntamentubaren satisfaciyo-co fiyadoriaquin

restante hasta el completo de la cantidad en que causare el remate á los ocho dias de verificarse la medicion del maderamen tambien en metalico y sin mas cobre que la sesta parte y sin excusa ni pretesto

7^a Que si se cortaren o derribaren por el rematante o sus operarios algunos arboles que no estubiese marcados por los comisionados de villa deberán quedarse todos ellos para esta debiendo además abonarle dicho rematante por via de indemnizacion de los daños y perjuicios cien reales vellon por cada uno de los que se encontraren derribados

8^a Que seran de cuenta del rematante los derechos de esta almone-da, candela y Esc^a de venta que deberá otorgar enseguida con fiador de la satisfacción del Ayuntamiento.

Hernani 10 de Junio de 1861
El Presidente del Ayuntamiento
Domingo Domingo

Garai horretan euskal udalek hiru diru-sarrera nagusi zituzten: herri ondasunen erabilera (basoak ustiatzeko baimenak, eraikuntzen errentamenduak), kontsumoaren gaineko zergak (ardoa, okela eta ogiaren kontsumoaren gain, besteak beste) eta partiketak. Gure testua lehen multzoan kokatzen da: udalak errematean ematen du udal ondasun baten ustiapena eta horren truke diru bat jasoko du.

Cesar Gallastegi, Gotzon Lobera eta Andres Urrutia.